

ASTIALDIA > EUSKAL HERRIKO TXOKOAK



Toloño itzalpean, kolore pintzelkadak

Toloño mendizerraren ikuspegia, San Ginesko zelaietatik ikusita. RAUL BOCAJO / ARCAZKI PRESS

Mendilerroaren magalean mahasti, haitz eta ubideek paisaia koloretsua osatzen dute; Erdi Aroko gotorleku garrantzitsua bisitatzeko aukera eskaintzen du Bastidak.

ANAKOZ AMENABAR

Horixka, gorria, berdea. Toloño gailurretik (1.271m) ubide eta mahasti sailek kolore anitzeko lurraldea osatzen dute Arabako Errioxan. Haren malde-tan ikusgarriak dira bertako itur-

buruetatik Bastida herria hornitzen zuten ubidearen arrastoak, eta elurzuloak ere ikus daitezke inguruetan, antzina elurrez bete eta inguruko herrietan saltzeko erabilitakoak. Euskal Herriko mendilerro luzeenetarikoan urte osoan bisitarien joan-etorria handia bada ere, ekaineko lehenengo igandea berezia izaten da Toloño, inguruetako herrietako jendea igotzen baita orduan. Txorizoa, odolkia eta inguruetako ardo ona ez dira falta izaten jaialdian.

Erdi Aroa atzera egingo dugu, Toloño mendilerrotik Buradon Gatzagara zuzentzen badugu begirada. Garaiko ate eta dorreak nagusi, XIX. mendera bitartean ustiatu zituzten gatzagek ematen diote izena herriari. Hiribildua da Buradon, eta bertara gatzeluko bi

ateetatik sartu ahal izango gara. Ipuinetako herrien moduan, kale estuen artean osteratxoak egitea da gomendagarriena herri txiki honetan. Oñatiko kondeen jauregia, Sortzez Garbiaren parroikia eta Santa Anako erromes ospitalea ezin dira ikusi gabe utzi.

Bastida ere Toloño magalean kokatzen da, gastronomia, paisaia ederra eta historiaren gotorleku. Buradon Gatzagatik bi orduko ibilaldia eginda helduko gara bertara. Conchas de Haro izeneko haiz-pitarte ikusgarria eta Briñas (Errioxa) igarota aurkituko dugu Bastida.

Aste barruan herri lasaia den arren, asteburu eta oporraldian hamaraldiz handitzen da biztanleria. Izan ere, gustu beste aukera eskaintzen ditu Araba Errioxako

txoko honek. Menditik txangoa egin, ondo bazkaltzeko aukera, eta historian atzera murgiltzeko aitzakia perfektua.

XVII eta XVIII. mendeetan izan zuen loraldiari esker, jauregi eta armarri etxe ugari daude Bastidan. Borroka leku (Bastio) izan zenaren arrastoak ere oraindik mantentzen dira, harresiz inguratuta. Larrazuriko arkutik sartu eta hiri-gune historiko interesgarria aurkituko dugu, monumentu izendatutakoa.

Kalerik kale, eraikin eder ugari-ekin egingo dugu topo. Egungo kultur etxea den Salazartarren jauregia, Quintanotarren etxea eta Arteagarena, besteak beste. Estilo greko-erromatarreko altxor arkitektonikoa da herriko udaletxea ere, eta Jasokundeko Andre Maria elizak ere merezi du bisitaxo bat. Ia hiru mende iraun zuten eliza eraikitzeak lanek. Musika zaleek organo baliotsua ikusi ahal izango dute bertan. XVII. mendeko pieza hau Euskal Herriko balioetsuenetakoa da.

Hiriaren sorleku izan zen mal-den gainean dago Kristo Santua-ren basiliza. Aipatzekoa da haren ate ederra, erromanikoaren era-

kusle. Gotorleku ezaugarriak di-tuen eraikin horretatik ikuspegi bikainak daude herri osora. Izan ere, bertatik, Ebro ibaia baino harantzago dagoen lautada guztia ikusten da. Barrualdean erromani-ko aurreko eliza baten arrastoak eta haitzean zulatutako hainbat hilobi ere badaude. Eta herriko inguruetan ere, haitz garaietan eta ubideetatik gertu, IX. eta X. mendeetako nekropoliak ikus daitezke, mila inguru. Hilobi antropomorfo horien artean Erremelluriko Andre Mariaren basetxeak dira aipagarri, gaur arte ondo mantendu direlako.

Herri barrenetik bisita egin os-tean, harri eta eraikinak alde bate-ra utzi eta kanpoaldean dagoen San Gines parkean lasaitasunera-ko tartea izango dugu, herrigune-tik bi kilometro. Izen bereko ba-selizaren inguruan, hamaiketa-koa egin edo haurrekin jolasteko aukera ona izan daiteke.

Eta mahastien lurraldean ezin ardorik falta. Toloño mendilerroa-ren eta Ebro ibaiaren arteko klima bereziari esker, kalitate bikaineko muztioak eskaintzen dizkigu. Bas-tidako kaleetan barrena, upategi ugari-ekin egingo dugu topo, an-

TXANTREKO EUSKALDUN GIROA



OGITARTEKOAK
ETXEKO FRIJITUAK
Ezkaba plaza, 7
Tel.: 948 36 30 72



GAZTELU
TABERNA - ERRETEGIA
Gure espezialitatea, haragia erreta
Federico Soto Pasealekua 3 • TXANTREA
Tel.: 948 12 09 99 • 619 74 43 15
Fax: 948 12 59 55
www.asadorgaztelu.com



Ogitartekoak
Afariak
Pintxoak
Ezkaba Plaza. Tel.: 948 07 39 71

XIX. mendera bitartean
ustiatu zituzten gatzagek
ematen diote izena
Buradon Gatzagari

Bertako klima
bereziari esker,
kalitate bikaineko
ardoak ditu Bastidak